

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “Enplegua sustatzeko politikek diskriminazio positiborako neurriak zehazteari buruzko” hurrengo LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:**

### **ZIOA**

Krisiaren eraginez kaltetuak bereziki emakumeak dira. Gaur egun oraindik ere gizarte segurantzian afiliatuen %43,2 emakumeak dira eta soldaten aldea 7.366 eurokoa izan zen 2008ko datuen arabera eta kontraturik gabe ari direnen %91 emakumeak dira.

Sailak berak iragarri duenez, “litekeena da datozen hilabeteetan zerbitzuen sektorean ere eragitea krisiak eta emakumeen enpleguaren galera areagotzen joatea.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak ezinbesteko du enplegua sustatzeko politiketan funtsezko printzipio moduan bere egitea sexuen arteko berdintasuna sustatzea, hau da, diskriminazio positiborako neurri zehatzak jartzea. Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

### **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

1- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jartzen diren enplegu politiketan funtsezko printzipio izan dadila sexuen arteko berdintasuna, eta beraz, diskriminazio positiborako neurri zehatzak aurreikus ditzala kontratazioak bultzatzeko diru-laguntzak arautzerakoan.

2- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio enplegua sustatu eta laguntzeko dagoeneko indarrean dauden programak arautzen dituzten Aginduetan behar diren aldaketak egin ditzala, gutxienez lagundutako enpleguen %50 emakumeei zuzendua izan dadin.

3- Modu berean, eskatzen dio aurrerantzean martxan jarri daitezkeen programetan ere, gutxienez lagundutako lanpostuen %50 emakumeei zuzentzeko irizpide bera erabili dezala.

**Gasteiz, 2009ko martxoaren 8an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**

**Aralar taldeko bozeramailea**